

3. DOKUMENTUA: KALKULUAK


3.1 Karga Estazioa	4
3.1.1 Beso oszilatzailearen palanka besoa.....	5
3.1.1.1 Palanka besoaren soldadurak.....	5
3.1.1.2 Palanka besoaren diseinua	7
3.1.1.2.1 Esfortzuak.....	8
3.1.1.2.2 D Sekzioa	11
3.1.1.2.3 E sekzioa	20
3.1.2 Balazta.....	27
3.1.2.1 Diametro txikieneko gurpila gelditzeko balaztatze momentua.....	27
3.1.2.2 Diametro handieneko gurpila gelditzeko balaztatze momentua	30
3.1.2.3 Balaztaren aukeraketa	32
3.1.2.4 Balazta-diskoaren dimentsionaketa.....	33
3.1.2.4.1 Beroaren xurgapenaren egiaztapena.....	35
3.1.3 Gurpilaren ardatza	36
3.1.3.1 Tentsioekiko diseinua.....	38
3.1.3.2 Errodamenduen aukeraketa	39
3.1.3.2.1 A euskarriko errodamenduen aukeraketa	42
3.1.3.2.2 B euskarriko errodamenduaren aukeraketa	46
3.1.3.2.3 Ondorioa	48
3.1.3.3 Deflexioekiko diseinua.....	49
3.1.3.4 Bibrazioekiko diseinua.....	51
3.1.4 Beso oszilatzailearen biraketa puntuko ardatza.....	53
3.1.4.1 Kargak.....	53
3.1.4.2 Tentsioekiko diseinua.....	55
3.1.4.3 Errodamendu-euskarrien aukeraketa.....	57

3.1.4.4 Errodamenduen aukeraketa	59
3.1.4.5 Deflexioekiko diseinua.....	60
3.1.5 Eragingailu linealaren aukeraketa.....	62
3.2 Abiadura estazioa.....	66
3.2.1 Motorea.....	67
3.2.2 Potentzia transmisio sistema. Uhalak	69
3.2.2.1 Karga faktorea.....	69
3.2.2.2 Diseinu potentzia.....	70
3.2.2.3 Perfilaren aukeraketa	70
3.2.2.4 Transmisio erlazioa	70
3.2.2.5 Poleen erreferentzia diametroa	71
3.2.2.6 Behin-behineko ardatzen arteko distantzia	73
3.2.2.7 Uhalen erreferentziazko luzera	73
3.2.2.8 Ardatzen arteko distantzia erreala.....	75
3.2.2.9 Doikuntzarako ibilbide minimoa.....	75
3.2.2.10 Uhalen abiadura eta flexio maiztasuna	76
3.2.2.11 Kontaktu angelua eta c1 faktore zuzentzailea	77
3.2.2.12 Garapen faktorea	77
3.2.2.13 Uhal bakoitzeko potentzia nominala.....	78
3.2.2.14 Uhal kopurua	79
3.2.2.15 Uhal baten tentsio estatiko minimoa.....	80
3.2.2.16 Indar axial estatikoa	81
3.2.3 Danborraren ardatza.....	82
3.2.3.1 Kargak eta esfortzuak	82
3.2.3.1.1 Kargak plano horizontalean	82
3.2.3.1.2 Kargak plano bertikalean.....	83
3.2.3.1.3 Momentu tortsorea	85

3.2.3.2 Tentsioekiko diseinua.....	85
3.2.3.3. Errodamendu-euskarrien aukeraketa	88
3.2.3.3.1 A errodamendu-euskarriaren aukeraketa.....	88
3.2.3.3.2 B errodamendu-euskarriaren aukeraketa.....	91
3.2.3.4 Errodamenduen aukeraketa	93
3.2.3.4.1 A euskarriko karga kapazitate dinamikoaren kalkulua	95
3.2.3.4.2 B euskarriko karga kapazitate dinamikoaren kalkulua.....	96
3.2.3.5 Deflexioekiko diseinua.....	99
3.2.3.5.1 D puntuaren gaineko kargak eragindako deflexioak.....	100
3.2.3.5.2 C puntuaren gaineko kargak eragindako deflexioak.....	102
3.2.3.5.3 Uhalen tentsioak euskarrietan eragindako biraketak (plano bertikalean)	103
3.2.3.5.4 Gurpilaren kargak euskarrietan eragindako biraketak (plano horizontalean).....	104
3.2.3.5.5 Biraketak guztira	104
3.2.3.6 Bibrazioekiko diseinua.....	105
3.2.4 Motor euslearen EFM analisisa	108
3.2.4.1 Hipotesiak	108
3.2.4.2 Sareketa.....	109
3.2.4.3 Inguru baldintzak	110
3.2.4.4 Kargak.....	110
3.2.4.4.1 Momentu maximoa eta motorraren pisua eragindako indarra.....	110
3.2.4.4.2 Uhalen tentsioa eragindako indarra	112
3.2.4.5 Emaitzak	114
3.2.4.6 Ondorioak.....	117


3.1 Karga Estazioa

Azpiatal honetan Karga estazioaren elementu desberdinen diseinua/aukeraketa gauzatuko da.



1.IRUDIA. Karga estazioa.

Elementu horiek; Beso oszilatzaillearen palanka besoa, gurpilaren ardatza, gurpilaren ardatzak eramango dituen errodamenduak, ardatzak geldiaraziko duen balazta eta balazta diskoa, beso oszilatzaillearen biraketa puntuko ardatza eta horren euskarriak eta azkenik, multzoa mugiaraziko duen eragingailua. Ikusi 1 eta 2. Irudiak elementuak identifikatzeko.




2.IRUDIA. Beso oszilakorra

3.1.1 Beso oszilatzailearen palanka besoa

3.1.1.1 Palanka besoaren soldadurak


Palanka besoa osatuko duten txapak eta piezak beraien artean soldatuta egongo dira. Erabiliko diren soldadura motak ertzetako topeka eta T erakoa izango dira, ikusi 3.Irudia.



3.IRUDIA. Izkineko soldadura.

Soldaduretarako aukeratuko den ekarpen materialaren propietate mekaniko-erresistenteak, batuko diren materialen propietateak baino hobetoak izan behar dira, era honetan soldadura piezaren elementu limitantea ez izatea saiater da.

4. Irudian ekarpen materialaren eta oinarria izango den materialaren tentsio deformazio diagramak erakusten dira, ekarpen materialaren limite elastikoa oinarri-materialarena baino handiagoa dela ikusten da.



4.IRUDIA.

Palanka besoa osatuko duten soldatutako elementu (piezak eta plakak) guztiak, WSD-E 7016 elektrodo bidez soldatuko dira, ikusi 5. irudia. Batuko diren elementuen sekzio tamaina berdineko kordoi sekzioa egingo da, barneratze osoko soldadura. Gehitutako material honek, batuko diren piezak baino limite elastiko altuagoa izango du.

$$\sigma_{yp\text{Kordoa}} = 420 - 480 \text{ MPa}$$

ELECTRODOS BASICOS STANDARD				
WSD-E 7016 Ref. 01005 EN 499: E 425B12H5 AWS A5.1: E 7016	COMPOSICION QUIMICA %			Rm: 510 ÷ 570 N/mm ² (Mpa) Rp 0,2: 420 ÷ 480 N/mm ² (Mpa) Alargamiento: 26 ÷ 30% Impacto: 200J a +20°C, 50J a -40°C
	C	Si	Mn	
	0,05	0,6	1,1	
<i>Electrodo básico de doble recubrimiento, excelente soldabilidad en todas las posiciones, menos en vertical descendente. Excelente penetración en cordones de raíz, buena soldabilidad incluso con corriente alterna, pocas proyecciones y fácil eliminación de escoria, contenidos de hidrógeno (HD< 10ml/100gr). Soldadura de acero S235J.G3, S355J.G3, C22, P235T, P355T, P235T, P355T, L210-L360NB, L290MB, S235JRS, S235JRS, S235J35, S355G15, acero fundido GP240R y acero naval grados A,B,D. * Nota: Es necesario un resacaado en estufa de 300÷ 350°C, mínimo 2 horas.</i>				


5. IRUDIA. Soldadurarako elektrodoaren ezaugarriak.

Hala ere, piezaren nekerako diseinua aurrera eramateko, soldadurak direla eta, neke limitearen koefiziente alderatzaile egokiak erabili dira. Ondorioz, ez da egiaztapen gehigarririk egin beharko.

3.1.1.2 Palanka besoaren diseinua

Palanka besoaren diseinuarekin hasi aurretik, horrek bere funtzioa betetzeko izan behar duen itxura, dimentsioak eta jasango dituen kargak zehaztu beharko dira.


6. irudiko eskeman adierazten denez, kargaren aplikazio puntua (A) palanka besoaren goiko muturrean kokatuta egongo da, zilindro hidraulikoak puntu honetan aplikatuko du indarra (F_z). Palankaren eraginez gurpilak jasotako karga F_G indarra eragingo du C puntuan.



6.IRUDIA. Palanka besoaren eskema.

3.1.1.2.1 Esfortzuak

Gurpilak jasan behar duen karga maximoa 80kN-ekoa da, beraz, C puntuan karga hori lortzeko zilindro hidraulikoak aplikatu beharreko indarra eta B puntuko erreakzioa kalkulatu dira. Horretarako momentuen batura B puntuan eta indarren batura x ardatzean egingo dira. Behin erreakzioa kalkulatu momentu flectoreen diagrama irudikatuko da, ikusi 7.Irudia.



7.IRUDIA. Esfortzuak eta momento flectore diagrama.

Non: $F_G=80\text{kN}$

$$\sum M_B = 0 ; F_Z \cdot 1070 = F_G \cdot 870 \rightarrow F_Z = 65,86\text{KN}$$

1. Ekuazioa

$$\sum F_x = 0 ; F_G = F_Z + R_B \rightarrow R_B = 14,14\text{KN}$$


2. Ekuazioa

Gurpilaren indarrak \overline{AB} elementuan momentu flektorea eragiteaz gain, F_G indarrak \overline{AB} –tik 400mm-tara eragiten duenez (ikus 1.irudia) momentu tortsore bat eragingo du \overline{AB} elementuko $\overline{C'B}$ tartean. Momentu tortsore horren balioa maximoa:

$$M_T = F_G \cdot \overline{CC'} = 80.000 [N] \cdot 0,4 [m] = 32.000 \text{ Nm}$$

3. Ekuazioa

Palanka besoa funtzionala izateko izango duen itxuraren arabera eta momentu diagramak ezagututa piezaren sekzio kritikoak zeintzuk izango diren analizatuko dira (8. irudia).



8.IRUDIA: Momentuen digramak

Non:

$$M_D = F_z \cdot \overline{AD} = 65860 [N] \cdot 0,075 [m] = 4939,5Nm$$

4. Ekuazioa

$$M_E = R_B \cdot \overline{BC} = 14140 [N] \cdot 0,74 [m] = 10463,6Nm$$

5. Ekuazioa

8.irudian ikusten den moduan, sekzio kritikoena D edo E sekzioa izango da. D sekzioa inertzi momentu txikiena duelako eta E sekzioa berriz, sekzio bereko tarterik kritikoenean dagoelako, non momentu tortsoatea eta tarte horren momentu flektorarik handiena emanten den.


Palanka besoak karga-deskarga zikloak jasago dituzenez agertuko diren tentsioak alternoak izango dira, beraz, pieza nekera diseinatuko da. Piezaren biziraupena 100 urtekoa izatea da helburua.

Palanka besoa eraikitzeko erabiliko den materiala F1140 altzairua izango da. Bere ezaugarri mekanikoak honakoak dira:

- Isurpen tentsioa $\rightarrow \sigma_{yp} = 310 \text{ MPa}$
- Hausturako tentsioa $\rightarrow \sigma_u = 565 \text{ MPa}$

3.1.1.2.2 D Sekzioa

Neke kalkuluarekin hasteko, lehenengo eta behin sekzioak jasango duen tentsioa ezagutu beharko da. Horretarako sekzioaren inertzia momentua ezagutu behar da, hau da, bere geometria. 9.irudian D sekziarako geometria posible bat aurkezten da.



9. IRUDIA. D sekzioa.

D Sekzioaren inertzia momentua x ardatzean:

$$I_{LND} = 2 \cdot \left(\frac{1}{12} \cdot b \cdot h^3 \right) = 2 \cdot \left(\frac{1}{12} \cdot 25 \cdot 75^3 \right) = 175,78 \cdot 10^4 \text{ mm}^4$$

6. Ekuazioa

Aldez aurretik aipatu den moduan palanka besoak karga deskarga zikloak jasango ditu, era horretan D sekzioan batezbesteko tentsioa eta tentsio alternoa agertuko dira. Tentsio horien balioak sekzioak jasaten dituen momentu flectore maximo eta minimoen menpean egongo dira.

D Sekzioak jaso beharko duen momentu flectore maximoa 4. Ekuazioan agertzen dena da. Momentu flectore minimoa berriz nulua izango da, pieza deskargatuta dagoen unean.

$$(4. Ekuazioa) \rightarrow M_{maxD} = M_D = 4939,5Nm$$

$$M_{minD} = 0Nm$$

Era honetan batezbesteko momentu flectorea eta momentu flectore alternoa kalkulatu daitezke. Kasu honetan horien balioa berdina izango da Momentu flectore minimoa nulua izateagatik.

$$M_{mD} = M_{rD} = \frac{M_{maxD} \pm M_{minD}}{2} = \frac{4939,5}{2} = 2469,75Nm$$

7. Ekuazioa


Aurrekoa jakinda batezbesteko tentsioa eta tentsio alternoa kalkulatuko dira:

$$(5. Irudia) \rightarrow Non: y_{max} = \frac{75}{2}mm$$

$$\sigma_{mD} = \sigma_{rD} = \frac{M_{mD} \cdot y_{max}}{I_{LND}} = \frac{2469,75 \cdot 10^3 [Nmm] \cdot \frac{75}{2} [mm]}{175,78 \cdot 10^4 [mm^4]} = 52,69MPa$$


8. Ekuazioa

Behin tentsioak ezagututa, batezbesteko tentsioa eta tentsio alternoak dituen neke egoera denez, Haigh-en diagramatik hurbildutako hutsegite gainazala (10.IRUDIA) erabiliko da tentsio limiteak (batezbesteko eta alterno) kalkulatzeko, piezak nekera 100 urteko biziraupena izan dezan.



10. IRUDIA. Haigh-en diagrama hurbildua.

Kasu honetan, batezbesteko tentsioa positiboa (trakziokoa) izango da, egoera horretako gainazal hurbilduaren aldea erabiliko da kalkulua aurrera eramateko, 11.irudian erakusten dena.



11. IRUDIA. Material harikorren neke gainazala.


Kalkulua aurrera eramateko erabiliko diren terminoen balioak:

- $\sigma_{yp} = 310 \text{ MPa}$ → Materialaren isurpen tentsioa, trakziara.
- $\sigma_u = 565 \text{ MPa}$ → Materialaren haustura tentsioa.
- $C.S. = 2$ → Segurtasun koefizientea.
- k_f → nekerako tentsio kontzentrazio faktorea.

Faktore hau, k_t estatikarako tentsio kontzentrazio faktorearekin erlazionatuta dago, ohikoak diren sekzioentzat tubulatua dagoena. D sekziorako ez da horrela beraz kalkulu kontserbakorra egiteko k_f -k har dezaken baliorik handiena hartuko da, $k_f = 2.5$.

- $\sigma_e \rightarrow$ sekzioaren neke limitea.

Koefiziente hau σ_e' -ri neke limitearen koefiziente aldaratzaileak aplikatuz lortzen da, 12. Irudia.



12. IRUDIA.

Beraz kasu honetan;

$$\sigma_u = 565 \text{ MPa} < 1400 \text{ MPa} \rightarrow \sigma_e' = 0.5 \cdot 565 = 282,5 \text{ MPa}$$

9. Ekuazioa


$$\sigma_e = \sigma_e' \cdot C_s \cdot C_d \cdot C_t \cdot C_f \cdot C_m \cdot C_j \cdot C_k \cdot C_T \cdot C_w \cdot C_v$$

10. Ekuazioa

Neke limitearen koefiziente aldaratzaileak

C_s : gainazal akaberako koefizientea.

Materialaren haustura tentsioa eta beroan laminatutako materiala dela jakinda, 13. Irudia



13. IRUDIA. Gainazal akaberako koefizientea.

$$C_s = 0.66$$

C_{dD} : Dimensio eta geometria koefizientea.

D sekzioaren kasuan, tamaina ertain-txikia denez:

$$C_{dD} = 0.9$$

C_t : Piezaren lan egiteko eraren araberako koefizientea.

Piezak flekzioan eta tortsioan lan egiten duenez.

$$C_t = 0.85$$

C_f : Fidakortasun koefizientea.

Kalkulu lar kontserbakorra ez egiteko koefiziente hau ez erabiltzea erabakitzen da.

C_m : Tratamendu mekanikoen koefizientea.

Piezak ez du tratamendu mekaniko berezirik jasoko, beraz, ez da koefiziente hau erabiliko.

C_j : Fretting koefizientea.


Piezak ez du beste pieza batzuekin kontakturik izango, hau da, kasu honetan ez da aplikagarria.

C_k : Tarka koefizientea:

Piezak ez du talkarik jasango beraz bere balioa 1 izango da.

C_T : Temperatura koefizientea:

Piezak 20-40°C tartean lan egingo du, temperatura tarte horretako C_T koefizientea 1 izango da 14.irudian ikusten denez.



14. IRUDIA. Tentsio limiteen aldaketa temperaturarekin.

$$C_T = 1$$

C_w : Soldadura koefizientea.

D sekzioan ondorengo tratamendurik gabeko soldadura egongo da:

$$C_w = 0.5$$

C_v : Efektu anitzen koefizientea.

Ez da bestelako efekturik agertuko beraz, ez da koefiziente hau erabiliko.

Neke limitearen koefiziente aldaratzaileak 10. Ekuazioan ordezkatzuz, neke limitea:

$$\sigma_{eD} = 282,5 \cdot 0,66 \cdot 0,9 \cdot 0,85 \cdot 0,5 = 71,31 \text{ MPa}$$

11. Ekuazioa


11.irudiko parametroak definitu direla 100 urteko biziraupenerako batezbesteko tentsio eta tentsio alternoko limiteak kalkulatu dira.

Makinaren funtzionamendutik badakigu zikloak 3 – 6 eguneko iraupena izan ditzazketela. Kalkulua kontserbakorra izateko zikloak 3 eguneko iraupena dutela hartuko da, beraz ziklo kopurua 100 urtetan:

$$N = 100 \text{ urte} \cdot \frac{365 \text{ egun}}{\text{urte } 1} \cdot \frac{1 \text{ ziklo}}{3 \text{ egun}} \approx 12167 \text{ ziklo}$$

12. Ekuazioa

Lortu nahi den biziraupenaren ziklo kopurua ezagututa 11.irudiko $\log \sigma_r - \log N$ ardatzetako Basquin-en kurba erabiliko da ziklo kopuru horri dagokion σ_N kalkulatzeko triangeluen antzekotasuna aplikatuz 15.irudian erakusten den moduan.




15.IRUDIA: Ebazpena, $\log\sigma_r - \log N$ grafikoan (Basquin-en kurba).

$$\frac{\text{Log}\left(\frac{0.9\sigma_u}{CS}\right) - \log\left(\frac{\sigma_e D}{CS \cdot k_f}\right)}{\log(10^6) - \log(10^3)} = \frac{\log\left(\frac{0.9\sigma_u}{CS}\right) - \log(\sigma_N)}{\log(12167) - \log(10^3)} \rightarrow \sigma_N = 89,68 \text{MPa}$$

13. Ekuazioa

σ_N ezagututa 16.irudiko $\sigma_m - \sigma_r$ ardatzetako Soderberg-en edo Goodman-en grafika erabiliko da $N=12167$ zikloko iraupena ematen duten $\sigma_m - \sigma_r$ konbinazioak adierazteko.



16. IRUDIA. Soderberg edo Goodman-en kurba

D sekzioko egoera tentsionalean $\sigma_m = \sigma_r$ denez, $\sigma_{m(12167)} = \sigma_{r(12167)}$ den egoera ebatzi beharko da, beraz, 16.irudian triangeluen antzekotasuna aplikatuz:

$$\frac{\sigma_N}{\frac{\sigma_{yp}}{CS}} = \frac{\sigma_N - \sigma_{r(12167)}}{\sigma_{m(12167)}} \rightarrow \sigma_{r(12167)} = \sigma_{m(12167)} = 56,81 \text{ MPa}$$

14.Ekuazioa


Beraz:

$$\sigma_{r(12167)} = \sigma_{m(12167)} = 56,81 \text{ MPa} > 52,69 \text{ MPa} = \sigma_{mD} = \sigma_{rD}$$

$\sigma_{r(12167)} = \sigma_{m(12167)} > \sigma_{mD} = \sigma_{rD}$ denez D sekzioak nekera gutxienez 100 urteko biziraupena izango du.

3.1.1.2.3 E sekzioa

D sekzioaren egin den bezala, E sekzioaren geometriaren inerti momentua kalkulatu da ondoren tentsioak kalkulatu ahal izateko, 17. Irudia.



17. IRUDIA. E sekzioa.

E sekzioaren inerti momentua x ardatzean:

$$I_{LNE} = \left(\frac{1}{12} \cdot 230 \cdot 230^3 \right) - \left(\frac{1}{12} \cdot 180 \cdot 180^3 \right) = 145,72 \cdot 10^6 \text{ mm}^4$$

15. Ekuazioa

8. irudian erakusten den moduan E sekzioak momentu fletorea eta momentu tortsorea jasaten du, beraz, horiek eragindako tentsio normalak eta ebakitzaileak kalkulatu beharko dira

Karga-deskarga kasua izateagatik eragindako batezbesteko tentsio eta tentsio alternoak berdinak izango dira.

Momentu fletoreak eragindako tentsioak:

$$(5. \text{ ekuaziotik}) \rightarrow M_{maxE} = M_E = 10463,6 \text{ Nm}$$

$$M_{minE} = 0Nm$$

$$M_{mE} = M_{rE} = \frac{M_{maxE} \pm M_{minE}}{2} = \frac{10463,6}{2} = 5231,8Nm$$

16.Ekuazioa

$$(17. Iruditik) \rightarrow y_{max} = \frac{230}{2} mm$$

$$\sigma_{mE} = \sigma_{rE} = \frac{M_{mE} \cdot y_{max}}{I_{LNE}} = \frac{5231,8 \cdot 10^3 [Nmm] \cdot \frac{230}{2} [mm]}{145,72 \cdot 10^6 [mm^4]} = 4,13 MPa$$

17.Ekuazioa

Momentu tortsoreak eragindako tentsioak:

Kalkuluarekin hasi aurretik piezak tortsio uniformera lan egiten duen ala ez jakin beharko da.

Pieza batek tortsio uniformera lan egiten duela esaten da hurrengo bi baldintzak betetzen direnean: agertzen den esfortzu bakarra konstantea den esfortzu tortsore bat da eta piezaren muturrak libreki kopatu dezakete.

Palanka besoak momentu flektoreaz gain momentu tortsorea jasaten duenez eta piezaren muturrak libreki kopatu ezin dutenez, piezak tortsio ez uniformera egiten du lan.

Piezaren sekzio guztiak era berean kopatu ezin dutenez, τ tentsio ebakitzailak sortzeaz gain σ_x tentsio normalak ere sortuko dira, hala ere, lodiera txikiko sekzio itxietan tortsio uniformeko egoera aplikatzea onargarria da.

Sekzio bat lodiera txikikoa kontsideratzeko sekzioaren zabalera hormaren lodiera baino hamar aldiz handiagoa izan behar da, kasu honetan:

$$b: \text{sekziaren zabalera} \rightarrow b = 230mm$$

$$t: \text{hormaren lodiera} \rightarrow t = \frac{230 - 180}{2} = 25mm$$

18.Ekuazioa

$$b > 10 \cdot t \rightarrow 230\text{mm} < 250\text{mm}$$

19.Ekuazioa

D Sekzioaren kasuan zabalera ez da hormaren lodiera baino hamar aldiz handiagoa, nolahi ere, kasu limitea izateagatik, kalkuluak sinplifikatzeko asmotan, lodiera txikiko sekzioa dela kontsideratuko da tentsio uniformeko egoera aplikatu ahal izateko. Era honetan, momentu tortsoreak tentsio ebakitzailak bakarrik eragingo ditu.

Tentsioen kalkuluarekin hasteko, karga-deskarga kasua izateagatik momentu tortsore minimo eta maximoak batezbesteko momentu tortsorea eta momentu tortsore alternoa eragingo dute.

$$M_{Tmax} = M_T = 32000Nm$$

$$M_{Tmin} = 0Nm$$

$$M_{Tm} = M_{Tr} = \frac{M_{Tmax} \pm M_{Tmin}}{2} = \frac{32000}{2} = 16000Nm$$

20.Ekuazioa

Lodiera txikiko sekzio itxietan eragindako tentsio tangenziala:

Non:

$$T: \text{Momentu tortsotea} \rightarrow T = 16 \cdot 10^6 Nmm$$

$$t_{min}: \text{Paretaren lodiera minimoa} \rightarrow t_{min} = 25mm$$

$$A_m: \text{Sekzioaren erdiko lerroak itxitako azalera} \rightarrow A_m = 205^2 = 42025mm^2$$

$$\tau_{mE} = \tau_{rE} = \frac{T}{2 \cdot t_{min} \cdot A_m} = 7,62 MPa$$


21.Ekuazioa

Palanka besoak tentsio normalak eta ebakitzailak jasango dituzenez, tentsio biaxialeko egoera izango du. D sekzioa tentsio biaxialarekin nekera 100 urte irauteko diseinatuko da.

Lehenengo, egoera tentsioanalaren tentsio printzupalak ezagutzeko, Mohr-en zirkulua erabilikoa da. $\sigma_{mE} = \sigma_{rE}$ denez eta $\tau_{mE} = \tau_{rE}$ denez, $\sigma_{1m} = \sigma_{1r}$ eta $\sigma_{2m} = \sigma_{2r}$ izango dira. Horrek esan nahi du Mohr-en zirkulua baten ebatzita balio guztiak lortuko direla, 18. Irudia.

$$\sigma_{mE} = \sigma_{rE} = 4,13 \text{MPa}$$

$$\tau_{mE} = \tau_{rE} = 7,62 \text{MPa}$$



18.IRUDUA. Mohr-en zirkulua ebatzita.

Mohr-en zirkuluaren ebazpenetik tentsio printzupalak ezagutzen dira, hau da, batezbesteko tentsio printzupalak eta tentsio printzupal alternoak.

$$\sigma_{1m} = \sigma_{1r} = 9,96MPa$$

22.Ekuazioa

Nahiz eta σ_{2m} -ren balioa negatiboa (konpresiokoa) izan, positibotzat (trakziokoa) hartuko da kalkuluak sinplifikatzeko. Sinplifikazio kontserbakorra izango da.

$$\sigma_{2m} = \sigma_{2r} = 5,83MPa$$

23.Ekuazioa

Piezaren tentsio egoera, batezbesteko ez nuludun tentsio egoera biaxial sinplea izango da tentsio printzipalak periodo berdina izango dutelako (tentsioen jatorrizko indarra berdina delako). Tentsio printzipalak sinkronizatuta egongo dira.

Ebazpena aurrera eramateko, lehenengo σ_{NE} balioa kalkulatu beharko da. D sekzioko σ_{ND} kalkulatzeko erabili diren balio guztiak berdinak izango dira sekzioaren neke limitea (σ_e) izan ezik, neke limitearen C_d koefiziente aldaratzailea desberdina izateagatik balioa aldatzen delako.

E sekzioaren tamaina D-rena baino askoz handiagoa izateagatik C_d koefiziente aldaratzailearen balioa 0.9 izatetik 0.8 izatera igarotzen da.

$$\text{Sekzioaren tamaina handia} \rightarrow C_{dE} = 0.8$$

Beraz, neke limitea:

$$\sigma_e = \sigma'_e \cdot C_s \cdot C_d \cdot C_t \cdot C_f \cdot C_m \cdot C_j \cdot C_k \cdot C_T \cdot C_w \cdot C_v$$

$$\sigma_{eE} = 282,5 \cdot 0,66 \cdot 0,8 \cdot 0,85 \cdot 0,5 = 63,39MPa$$


24.Ekuazioa

100 urtetan ziklo kopurua:

$$N = 100 \text{ urte} \cdot \frac{365 \text{ egun}}{\text{urte } 1} \cdot \frac{1 \text{ ziklo}}{3 \text{ egun}} \approx 12167 \text{ ziklo}$$

25.Ekuazioa

Basquin-en kurban triangeluen antzekotasuna aplikatuz E sekziorako σ_N kalkulatu da 19. Irudia.




19.IRUDIA: Ebazpena, $\log \sigma_r - \log N$ grafikoan (Basquin-en kurba).

$$\frac{\log\left(\frac{0.9\sigma_u}{CS}\right) - \log\left(\frac{\sigma_e E}{CS \cdot k_f}\right)}{\log(10^6) - \log(10^3)} = \frac{\log\left(\frac{0.9\sigma_u}{CS}\right) - \log(\sigma_N)}{\log(12167) - \log(10^3)} \rightarrow \sigma_N = 85,94 \text{ MPa}$$

26.Ekuazioa

Tentsio estatiko baliokideak ($\sigma_{1eeq}, \sigma_{2eeq}$) kalkulatzeko Soderberg-en kurban triangeluen antzekotasuna aplikatu da, 20. Irudia.



20.IRUDIA: Soderberg-en kurba. Tentsio estatiko baliokideen kalkulua.

$$\sigma_{1eeq} = 41,77MPa$$

$$\sigma_{2eeq} = 24,45MPa$$

$$\sigma_{3eeq} = 0MPa$$

Von Mises-en hutsegite teoria erabilita piezaren segurtasun koefizientea (CS) N=12167 ziklo-ko iraupenerako kalkulatu da.

$$\sigma_{yp} = 310MPa$$

$$\sigma_{eq} = \sqrt{\frac{1}{2}[(\sigma_{1eeq} - \sigma_{2eeq})^2 + (\sigma_{2eeq} - \sigma_{3eeq})^2 + (\sigma_{1eeq} - \sigma_{3eeq})^2]} \leq \frac{\sigma_{yp}}{CS} \rightarrow$$

$$\rightarrow CS = 7.76 > 1$$

27.ekuazioa

Segurtasun koefizientea 1 baino askoz handiagoa denez pieza nekera N=12167 ziklo irauteko ondo diseinatuta dago. E sekzioa lodiera txikioa kontsideratzeko egin den

sinplifikapena ontzat hartzen da segurtasun koefizientearen balioa unitatea baino askoz handiagoa dela ikusita.

3.1.2 Balazta

Balaztaren funtzioa, gurpila danborrarekin kontaktuan ez dagoenean gurpila eta ardatza osatzen duten multzo birakaria gelditzea da.

Balazta diseinatzeko disko bidezko balaztetako RINGSPANN katalogoa erabilikoa da.

Katalogoak azaltzen duen moduan, diskoaren tenperatura kontrolatu behar da hau 300°C-tik ez igotzeko, horretarako, katalogoaren arabera balaztatze denbora 10 segundo baino txikiagoa izan behar da. Beraz:

Balaztatze denbora: $t_B = 9,5s$ definituko da.

Lehenik eta behin balaztatze momentu maximoa kalkulatu beharko da ondoren exigentzia horrek betetzen duen balazta eta diskoa aukeratzeko.

Balaztatze momentuan eragina duten aldagaiak; balaztatze denbora, masa birakorraren inertzia momentua eta hasierako eta amaierako biraketa abiadurak dira. Balaztatze denbora definitu denez ($t_B = 9,5s$) eta amaierako biraketa abiadura kasu guztietarako nulua izango denez (gurpila guztiz geldituta), balaztatze momentuan eragina izango duten bi aldagai geratuko dira: Masa birakorraren inertzia momentua eta hasierako biraketa abiadura.

Horien arabera kasu kritikoak izan daitezkeen bi kasuak aztertuko dira; Diametro txikieneko gurpila gelditzeko balaztatze momentua eta diametro handieneko gurpila gelditzeko balaztatze momentua.

3.1.2.1 Diametro txikieneko gurpila gelditzeko balaztatze momentua

Saiakuntza-bankuan montatuko diametro txikieneko gurpila 205/65R17.5 tamainakoa izango da.

205/65R17.5 Gurpilaren datuak:

$$\text{Hagunaren erradioa} \rightarrow R_h = \frac{17,5''}{2} \cdot \frac{25,4mm}{1''} = 222.25mm$$

$$\text{Gurpilaren erradioa} \rightarrow R_g = \frac{0.715}{2} m$$

$$\text{Hagunaren masa} \rightarrow m_h = 25 kg$$

$$\text{pneumatikoaren masa} \rightarrow m_p = 35 kg$$

Gurpil osoaren masa:

$$m_g = m_p + m_h = 35 + 25 = 60 kg$$

28.Ekuazioa

RINGSPANN katalogotik; balaztatze momentua:

$$M_B = M_R = \frac{J_{red}}{t_B} \cdot \frac{n_1 - n_2}{9,55}$$

29.Ekuazioa

Gurpila eta ardatza osatzen duten multzo birakariaren inertzia momentua (J_{red}) kalkulatzeko pneumatikoaren eta hagunaren inertzia momentuak batuko dira. Ardatzaren inertzia momentua ez da kontutan hartuko bere masa txikia eta biraketa ardatzatik hurbil egoteagatik. Balaztaren inertzia momentua ere ez da kontutan hartuko bere masa txikia delako gurpilarenarekin konparatuta.

Pneumatikoaren inertzia momentua zilindro huts baten inertzia momentuarekin hurbilduko da, horretan, barne erradioa hagunaren erradioa izango da, kanpoko erradioa gurpilaren erradioa eta bere masa pneumatikoaren masa.

$$R_h = 222.25 \cdot 10^{-3} m$$

$$R_g = \frac{0,715}{2} m$$

$$m_p = 35 kg$$

$$J_p = \frac{1}{2} \cdot m_p \cdot (R_h^2 + R_g^2) = 3,1 kgm^2$$

Hagunaren inertzia momentua zilindro baten inertzia momentuarekin hurbilduko da Zilindro horren erradioa hagunaren erradioa izango da eta bere masa hagunaren masa.

$$R_h = 222.25 \cdot 10^{-3} m$$

$$m_h = 25 kg$$

$$J_h = \frac{1}{2} \cdot m_h \cdot R_h^2 = 0,62 kgm^2$$

Multzo birakariaren masa pneumatikoaren eta hagunaren inertzia momentuen batura izango da:

$$J_{red} = J_p + J_h = 3,1 + 0,62 = 3,72 kgm^2$$

30.Ekuazioa

Hasierako biraketa abiadura kalkulatzeko gupila Errodadura Saiakuntza-bankua abiadura maximoan (250km/h) biratzen hari dela hartuko da nahiz eta abiadura hori kamioien gupilen saiakuntzak egiteko baino handiagoa izan. Abiadura hori abiadura tangenziala ($V_{tan} = 250 Km/h$) izango da, hortik hasierako biraketa abiadura ondoriozta daiteke:

$$n_1 = \frac{V_{tan}}{R_g} = \frac{250 Km/h}{\frac{0,715}{2} \cdot 10^{-3} Km} \cdot \frac{1h}{60min} \cdot \frac{bira 1}{2\pi rad} = 1854,5 rpm$$

31.Ekuazioa

Balaztatzearen helburua gupila guztiz gelditzea denez, amaierako biraketa abiadura:

$$n_2 = 0 rpm$$

Datu horiek guztiak 29. Ekuazioan ordezkatzuz, diametro txikieneko gupila abiadura maximoatik gelditu arte aplikatu beharreko balaztatze momentua:

$$J_{red} = 3,72 \text{kgm}^2$$

$$t_B = 9,5 \text{s}$$

$$n_1 = 1854,5 \text{rpm}$$

$$n_2 = 0 \text{rpm}$$

$$M_B = \frac{3,83 \text{kg/m}}{9,5 \text{s}} \cdot \frac{1854,5 \text{rpm} - 0}{9,55} = 82.65 \text{Nm}$$

32.Ekuazioa

3.1.2.2 Diametro handieneko gurpila gelditzeko balaztatze momentua

Saiakuntza-bankuan montatuko diametro handieneko gurpila 385/65R22.5 tamainakoa izango da.

385/65R22.5 Gurpilaren datuak:

$$\text{Hagunaren erradioa} \rightarrow R_h = \frac{22,5''}{2} \cdot \frac{25,4 \text{mm}}{1''} = 285,75 \text{mm}$$

$$\text{Gurpilaren erradioa} \rightarrow R_g = \frac{1,087}{2} \text{m}$$

$$\text{Hagunaren masa} \rightarrow m_h = 50 \text{kg}$$

$$\text{pneumatikoaren masa} \rightarrow m_p = 70 \text{kg}$$

Gurpil osoaren masa:

$$m_g = m_p + m_h = 50 + 70 = 120 \text{kg}$$

33.Ekuazioa

RINGSPANN katalogotik; balaztatze momentua. (29. Ekuazioa)

Gurpilaz eta ardatzaz osatutako multzo birakariaren inertzia momentua (J_{red}) diametro txikieneko gurpilarako kalkulatu den moduan kalkulatu da.

Pneumatikoaren inertzia momentua zilindro huts baten inertzia momentuarekin hurbilduko da. Horretan, barne erradioa hagunaren erradioa izango da, kanpoko erradioa gurpilaren erradioa eta bere masa pneumatikoaren masa.

$$R_h = 285,75 \cdot 10^{-3} m$$

$$R_g = \frac{1,087}{2} m$$

$$m_p = 70 kg$$

$$J_p = \frac{1}{2} \cdot m_p \cdot (R_h^2 + R_g^2) = 13,2 kgm^2$$

Hagunaren inertzia momentua zilindro baten inertzia momentuarekin hurbilduko da. Zilindro horren erradioa hagunaren erradioa izango da eta bere masa hagunaren masa.

$$R_h = 285,75 \cdot 10^{-3} m$$

$$m_h = 50 kg$$

$$J_h = \frac{1}{2} \cdot m_h \cdot R_h^2 = 2,04 kgm^2$$

Multzo birakariaren masa pneumatikoaren eta hagunaren inertzia momentuen batura izango da:

$$J_{red} = J_p + J_h = 13,2 + 2,04 = 15,24 kgm^2$$

34.Ekuazioa

Hasierako biraketa abiadura kalkulatzeko gupila Errodadura Saiakuntza-bankua abiadura maximoan (250km/h) biratzen hari dela hartuko da nahiz eta abiadura hori kamioien gupilen saiakuntzak egiteko erabiltzen den abiadura baino handiagoa izan. Abiadura hori abiadura tangenziala ($V_{tan} = 250 Km/h$) izango da, hortik hasierako biraketa abiadura ondoriozta daiteke:

$$n_1 = \frac{V_{tan}}{R_g} = \frac{250 Km/h}{\frac{1,087}{2} \cdot 10^{-3} Km} \cdot \frac{1h}{60min} \cdot \frac{bira 1}{2\pi rad} = 1220,14 rpm$$

35.Ekuazioa

Balaztatzearen helburua gurpila guztiz gelditzea denez, amaierako biraketa abiadura:

$$n_2 = 0 \text{ rpm}$$

Datu horiek guztiak 29. Ekuazioan ordezkatzuz, diametro handieneko gurpila abiadura maximotik gelditu arte aplikatu beharreko balaztatze momentua:

$$J_{red} = 15,24 \text{ kgm}^2$$

$$t_B = 9,5 \text{ s}$$

$$n_1 = 1220,14 \text{ rpm}$$

$$n_2 = 0 \text{ rpm}$$

$$M_B = \frac{15,24 \text{ kg/m}}{9,5 \text{ s}} \cdot \frac{1220,14 \text{ rpm} - 0}{9,55} = 204,96 \text{ Nm}$$

Beraz:

$$204,96 \text{ Nm} > 82,65 \text{ Nm}$$


3.1.2.3 Balaztaren aukeraketa

Gurpil handiena balaztatzeko aplikatu beharreko momentua, gurpil txikia balaztatzeko aplikatu behar den momentua baino handiagoa da. Honenbestez RINGSPANN katalogotik 204.96Nm-tako balaztatze momentua aplika dezaken balazta aukeratu beharko da.

Eragingailu pneumatikoa duen balazta aukeratu da. Balaztatzeko momentua haizeak aplikatutako presioaren arabera eta balazta-diskoaren diametroaren arabera izango da.

21.irudian erakusten denez **DV 020 PFK – 630 M – 12** balaztak 5 bar-etako presioarekin funtzionatuz eta 250mm-ko diametroko balazta-disko batekin 204,96Nm-ko balaztatze momentua baino handiagoa eman ahal izango du. 6 bar-etako presioarekin 250Nm inguruko balaztatze momentuko kapazitatea izanaz.

DV 020 PFK - 630 M - 12


Datos técnicos

21.IRUDIA. Balaztaren aukeraketa.

Balaztaren erreferentzia:

DV 020 PFK – 630 M – 12**3.1.2.4 Balazta-diskoaren dimentsionaketa**

Aurreko atalean zehaztu den moduan 250mm-ko diametroa izango duen B formako (22.irudia) balazta-diskoa aukeratuko da.



**Forma B
con chavetero**

Tamaño D mm	Espesor del disco W mm	Desbaste d_v mm	Forma F				Forma B		
			Agujero acabado d_F mm	H mm	T mm	Z*	Agujero acabado máx. d_B^{**} mm	L mm	K mm
125	12,5	-	40	9	56	4	32	37,5	50
150	12,5	-	50	9	66	4	40	42,5	60
200	12,5	-	63	11	83	8	45	52,5	65
250	12,5	-	80	11	100	8	70	62,5	100

22.IRUDIA. Balazta-diskaren dimentsioak.

Balazta-diskoaren datu teknikoak aztertuta (23.irudia) horren biraketa abiadura maximoa ez dela gaitzeko konprobatzen da. Diametro txikieneko gupilaren abiadura maximoa (n_{1max}) balaztaren abiadura maximoa (n_{max}) baino txikiagoa da.

$$n_{1max} = 1854,5rpm < 7300rpm = n_{max}$$

36.Ekuazioa

Tamaño	Espesor del disco de freno	Velocidad máx.	Forma F	Forma B
D mm	W mm	n_{max} min ⁻¹	Momento de inercia J kgm ²	Momento de inercia J kgm ²
125	12,5	14 500	0,0022	0,0023
150	12,5	12 100	0,0045	0,0047
200	12,5	9 100	0,0141	0,0146
250	12,5	7 300	0,0345	0,0380

23.IRUDIA. Balazta-diskaren datu teknikoak.

3.1.2.4.1 Beroaren xurgapenaren egiaztapena

Egiaztapen hau balaztatze akzio bakarreko balaztatze lan onargarriaren arabera egingo da. RINGSPANN katalogoak erakutsitako ekuazioak eta taulak erabiliko dira.

Bete beharreko desberdintza:

$$W_{BSzul} \geq W_B$$

37.Ekuazioa

$$W_B = \frac{J_{red} (n_1^2 - n_2^2)}{182,5}$$

38.Ekuazioa

38.Ekuazioa analizatuz egiaztapen honetarako kasu kritikoena diametro handieneko gurpilarena jarraitzen izango duela ondoriozta daiteke. Nahiz eta diametro txikieneko gurpilaren biraketa abiadura maximoa (31.Ekuazioa) diametro handieneko gurpilaren abiadura maximoa (35.Ekuazioa) baino %30 inguru handiagoa izan, diametro handieneko gurpilaren multzo birakariaren inertzia momentua (34.Ekuazioa) diametro txikieneko gurpilaren multzo birakariaren inertzia momentua (30.Ekuazioa) baino 5 aldiz handiagoa izango da.

$$J_{red} = 15,24 \text{ kgm}^2$$

$$n_1 = 1220,14 \text{ rpm}$$

$$W_B = \frac{15,24 \cdot 1220,14^2}{182,5} \approx 124.320$$

D mm	W_{BSzul} W = 12,5 mm Nm
125	120000
150	170000
200	260000
250	350000
300	450000

24.IRUDIA. W_{BSzul}

$$W_{BSzul} = 350.000 > 124.320 = W_B$$

37. Ekuazioaren desberdintza betetzen da beraz balaztaren diskoak balaztatze prozesuan sortzen den beroa xurgatzeko ahalmena izango du.

Beroaren disipazioari dagokionez ez da arazorik egongo. Errodadura saiakuntzen iraupen luzeagatik (minimo 2 egun) balaztaren aktuazioaren frekuentzia oso baxua izango da eta beraz beroa disipatzeko denbora nahikoa egongo da.


Balaztaren erreferentzia:

BB 0250/12 -070 B

3.1.3 Gurpilaren ardatza


Ardatzak bere funtzioa betetzeko bi euskarri izango ditu eta albo bakoitzean ardatza hegalean egongo da. Mutur batean gurpila finkatzeko kokalekua egonda eta beste muturrean berriz balazta-diskoa kokatzeko lekua, 25. Irudia.

Gurpilaren ardatza saiatuko diren gurpilen kokalekua izango denez, ardatzak jasoko duen karga bakarra gurpilak jasoko duen indarra izango da. $F_G=80\text{kN}$



25.IRUDIA. Ardatzaren eskema.

Karga horrekin ardatzak jasan beharko duen momentu flektore maximoa ezagutu beharko da, 26. Irudia. Ardatzak ez du momentu tortsorarik jasango.



26.IRUDIA. Gurpilaren ardatzaren momentu flektoreen diagrama.

Momentu flektore maximoaren balioa:

$$M_{max} = 10,4 \cdot 10^6 \text{Nmm}$$

3.1.3.1 Tentsioekiko diseinua

Gurpilaren ardatza aurreko atalean kalkulatu diren kargak jasateko gai izan behar da. Indarrak ez direnez konstanteak izango gurpilaren ardatzaren diseinua nekera egin beharko da, horretarako ASME kodea erabiliko da, era honetan ardatzak izan beharko duen diametro minimoa ezagutuko da kalkulu erraz eta kontserbakor baten bitartez.

$$d = \sqrt[3]{\frac{32 \cdot CS}{\pi \cdot \sigma_s} \cdot \sqrt{(C_m \cdot M)^2 + (C_t \cdot T)^2}}$$

39.Ekuazioa

Lehenik ardatzaren materiala aukeratu beharko da, kasu honetan AISI 4340 (F-1272). Bere ezaugarriak honakoak dira:

AISI 4340		BALIOA	
Brinell Gogortasuna	(HB)	300/350	
Fluentzia Tentsioa	(σ_{yp})	60-74 kgf/mm ²	(726 MPa)
Haustura Tentsioa	(σ_u)	95-105 kgf/mm ²	(1030 MPa)

1.TAULA. AISI 4340 Materialaren propietateak.

$$\sigma_s = \sigma_{yp} = 726 \text{ Mpa}$$

ASME kodearen bitartez kalkulua egiteko C_m koefizientea aukeratu beharko da. 27. Irudia. Koefiziente honek tentsioen aldagarritasuna, ardatzak izan dezaken tentsio kontzentrazio posibleak eta aplikatzen diren esfortzuen talka posibleak kontsideratzen ditu.

	C_m	C_t
EJES FIJOS:		
Carga aplicada gradualmente (constante)	1.0	1.0
Carga aplicada repentinamente	1.5-2.0	1.5-2.0
EJES GIRATORIOS:		
Carga aplicada gradualmente (constante)	1.5	1.0
Carga aplicada repentinamente, sólo pequeños impactos	1.5-2.0	1.0-1.5
Carga aplicada repentinamente, grandes impactos	2.0-3.0	1.5-3.0

27.IRUDIA. C_m koefizientearen balioa.

Balio guztiak 39.Ekuazioan ordezkatzuz:

Segurtasun koefizientea $\rightarrow CS = 2$

$\sigma_s = 726 \text{ Mpa}$

$C_m = 1,5$

$M = M_{max} = 10,4 \cdot 10^6 \text{ Nmm}$

$T = 0$

$$d = \sqrt[3]{\frac{32 \cdot CS}{\pi \cdot \sigma_s} \cdot \sqrt{(C_m \cdot M)^2 + (C_t \cdot T)^2}}$$

$$d_{min} = 75.9 \text{ mm}$$

3.1.3.2 Errodamenduen aukeraketa

Errodamenduak jasango dituzten kargak errodadura saiakuntza-bankuan aurrera eramango den saiakuntza motaren arabera izango dira.

Errodadura saiakuntza froga mota desberdin asko egin ahal direnez (biraketa abiadura desberdinekin, gurpilak jasotako karga eta karga etapa horien iraupen desberdinekin...) makinak jasan beharko duen karga ziklo zehatza definitzea ezinezkoa da. Halatan, enpresak duen esperientzian oinarrituta bezeroak definitutako karga-zikloa erabiliko da errodamenduen aukeraketa egiteko. 28.irudian erakusten da, 295/80R22.5 tamainako pneumatikoari egindako errodadura saiakuntza.

Paso	F. Kg.	V.Km/h	°C Amb	Inicio del Paso	Fin del Paso
1	2330	57,0	38,6	16/2/2017 14:58:58	16/2/2017 21:59:04
2	3004	57,0	38,9	16/2/2017 21:59:04	17/2/2017 13:59:19
3	3573	57,0	38,7	17/2/2017 13:59:19	18/2/2017 13:59:40
4	3929	57,0	39,1	18/2/2017 13:59:40	18/2/2017 19:59:46
5	4286	57,0	39,3	18/2/2017 19:59:46	19/2/2017 1:59:51
6	4643	57,0	39,5	19/2/2017 1:59:51	19/2/2017 7:59:55
7	5003	57,0	40,2	19/2/2017 7:59:55	19/2/2017 14:00:01
8	5370	57,0	40,5	19/2/2017 14:00:01	19/2/2017 20:00:06
9	5725	57,0	40,4	19/2/2017 20:00:06	20/2/2017 2:00:11
10	6088	57,0	38,6	20/2/2017 2:00:11	20/2/2017 8:00:16

28.IRUDIA. Errodamenduak diseinatzeko karga zikloa.

295/80R22.5 tamainako pneumatiko baten biraketa abiadura 57 Km/h-ko abiaduran:

$$\text{Gurpilaren erradioa} \rightarrow R_g = 522\text{mm}$$

$$\omega = \frac{V}{R_g} = \frac{57 \text{ Km/h}}{522 \cdot 10^{-6} \text{ Km}} \cdot \frac{1 \text{ h}}{60 \text{ min}} \cdot \frac{1 \text{ bira}}{2\pi \text{ rad}} = 289,65 \text{ rpm}$$

40.Ekuazioa

F balioak gurpilak jasaten duen karga adierazten du. 25.irudiko ardatzaren eskeman $\sum M_A = 0$ aplikatuz pausu bakoitzerako B euskarriko erreakzioa kalkulatu daiteke. Ondoren $\sum F_y = 0$ aplikatuz A euskarriko erreakzioak lortzen dira. 2.taulan Pausu bakoitzean gurpilak eta euskarriak jasaten duten indarrak, pausu bakoitzaren iraupena eta iraupenaren ehunekoa adierazten dira.


PAUSUA	GURPILAREN KARGA (N)	RA (N)	RB (N)	PAUSUAREN IRAUPENA (h)	PAUSUAREN IRAUPENA (%)
1	-22857.3	29932.18	-7074.88	7	7.87
2	-29469.24	38590.67	-9121.43	16	17.98
3	-35051.13	45900.29	-10849.16	24	26.97
4	-38543.49	50473.62	-11930.13	6	6.74
5	-42045.66	55059.79	-13014.13	6	6.74
6	-45547.83	59645.97	-14098.14	6	6.74
7	-49079.43	64270.68	-15191.25	6	6.74
8	-52679.7	68985.32	-16305.62	6	6.74

9	-56162.25	73545.80	-17383.55	6	6.74
10	-59723.28	78209.06	-18485.78	6	6.74

2.TAULA. Karga zikloak, iraupenak eta euskarrietako erreakzioak.

Errodamenduen aukeraketa egiteko ISO 76 eta ISO 281 arauak oinarritzat hartu behar dira, arau hauetan errodamenduen kargen kalkulua, bizitza nominalaren kalkulua eta errodamenduen kapazitatea zehazten baitute.

29.irudian ikusten denez, A euskarrian bi errodamendu muntatuko dira bata boladun errodamendua eta bestea errodilo zilindrikoetako errodamendua izango da. B euskarrian aldiz errodilo zilindrikoetako errodamendu bakarra muntatuko da.



29.IRUDIA. Errodamenduen muntaia.

Errodamenduen aukeraketa egiteko euskarri bakoitzerako C karga kapazitate dinamikoa kalkulatu beharko da, ondoren hori baino kapazitate handiagoa duten errodamenduak aukeratzeko.

$$C = F_e \cdot L_{10}^{\frac{1}{a}}$$

41.Ekuazioa

L_{10} balioa bola bidezko eta errodilo zilindriko bidezko errodamenduetan:

$$L_{10} = \frac{L}{0,02 + 4,439 \cdot \left[\ln \left(\frac{1}{R} \right) \right]^{\frac{1}{1,483}}}$$

42.Ekuazioa

Errodamenduen bizitza nominala L_{10} kalkulatzeko, lehenengo errodamenduen L iraupena (bizitza erabilgarrian zehar emango duten bira kopurua) kalkulatu beharko da. Errodamenduak aurretik aurkeztu den karga zikloa 45.000 ordu irauteko diseinatuko dira, 40. Ekuaziotik biraketa abiadura ezagututa:

$$L = 45.000h \cdot 289,65rpm \cdot \frac{60min}{1h} \approx 782 \text{ milioi bira}$$

L_{10} bizitza nominala 0.95-ko fidakortasunarekin (42.Ekuazioa):

$$L = 782 \text{ milioi bira}$$

$$R = 0,95 \text{ (fidakortasuna)}$$

$$L_{10} = \frac{L}{0,02 + 4,439 \cdot \left[\ln \left(\frac{1}{R} \right) \right]^{\frac{1}{1,483}}} = \frac{782}{0,02 + 4,439 \cdot \left[\ln \left(\frac{1}{0,95} \right) \right]^{\frac{1}{1,483}}} = 1263,21 \text{ milioi bira}$$

43.Ekuazioa

3.1.3.2.1 A euskarriko errodamenduen aukeraketa

A euskarriko errodamenduak jasan beharko duten Karga kapazitate dinamikoa kalkulatzeko (41.Ekuazioa), F_e indarra zein den zehaztu beharko da 44.Ekuazioaren arabera.

$$F_e = X \cdot V \cdot F_r + Y \cdot F_a$$

44.Ekuazioa

F_a/C_0	ϵ	$F_a/(VF_r) \leq \epsilon$		$F_a/(VF_r) > \epsilon$	
		X	Y	X	Y
0.014*	0.19	1	0	0.56	2.30
0.021	0.21	1	0	0.56	2.15
0.028	0.22	1	0	0.56	1.99
0.042	0.24	1	0	0.56	1.85
0.056	0.26	1	0	0.56	1.71
0.07	0.27	1	0	0.56	1.63
0.084	0.28	1	0	0.56	1.55
0.11	0.30	1	0	0.56	1.45
0.17	0.34	1	0	0.56	1.31
0.28	0.38	1	0	0.56	1.15
0.42	0.42	1	0	0.56	1.04
0.56	0.44	1	0	0.56	1

*Usar 0.014 si $F_a/C_0 < 0.014$

30.IRUDIA. F_e -rako X eta Y balioak.

Kasu honetan ez da indar axialik egongo, hau da, $F_a=0$ izango da, beraz $X=1$ izango da eta barne eraztuna biraka egongo denez $V=1$, gauzak horrela:

$$F_{eA} = F_r$$

A euskarriko indar baliokidearen (F_{eA}) balioa kalkulatzeko, karga aldakorreko eta abiadura angeluar konstanteko adierazpena erabiliko da.

$$F_{eA} = \sqrt{{}^a F_{1A} \cdot \frac{q_1}{100} + {}^a F_{2A} \cdot \frac{q_2}{100} + \dots + {}^a F_{9A} \cdot \frac{q_9}{100} + {}^a F_{10A} \cdot \frac{q_{10}}{100}}$$

45.Ekuazioa

PAUSUA	F_{nA} (N)	q_n
1	29932.18	7.87
2	38590.67	17.98
3	45900.29	26.97
4	50473.62	6.74
5	55059.79	6.74
6	59645.97	6.74
7	64270.68	6.74
8	68985.32	6.74

9	73545.80	6.74
10	78209.06	6.74

3.TAULA. 45.Ekuaziorako balioak

A euskarrian errodilo zilindrikoetako eta boladun errodamenduak montatuko direnez, 45.Ekuazioan ordezkatu den a -ren balioa errodilo zilindrikoetako errodamenduei dagokiona esleituko zaio, a -ren balio posible handiena izateagatik.

$$a = \frac{10}{3}$$

Aurreko balioa eta 3.TAULA-ko datuak 45.Ekuazioan ordezkatzuz:

$$F_{eA} = 56779 \text{ N} = 56,78 \text{ KN}$$

A euskarriko indar baliokidea ezagututa, (41.Ekuazioa)

$$L_{10} = 1263,21 \text{ milioi bira}$$

$$F_{eA} = 56,78 \text{ KN}$$

$$a = \frac{10}{3}$$

$$C_A = F_e \cdot L_{10}^{\frac{1}{a}} = 56,78 \cdot 1263,21^{\frac{1}{3}} = 483,77 \text{ KN}$$

A euskarrian bi errodamendu muntatuko direnez (errodilo zilindrikoetako eta boladun errodamendua), aukeratutako errodamenduen karga kapazitate dinamikoaren batura A euskarrian egongo den karga baino handiagoa bada errodamenduak karga hori jasan ahalko dutela esan nahiko du.

$$C_{zilindrikoduna} + C_{boladuna} > C_A = 483,77 \text{ KN}$$

Beste baldintzen artean argi izan behar da ardatzaren diametroa 60.27 mm-ko baino handiagoa izan behar dela

SKF katalogoan errodilo zilindrikodun errodamenduaren aukeraketa:

Dimensiones principales			Capacidad de carga básica		Carga límite de fatiga	Velocidades nominales		Masa	Designaciones	Jaula estándar alternativa ¹⁾
d	D	B	dinámica C	estática C ₀	P _u	Velocidad de referencia	Velocidad límite		Rodamiento con jaula estándar	
mm			kN		kN	r. p. m.		kg	-	
105	225	49	500	500	57	3 200	3 800	8,6	* N 321 ECP	-
	cont. 260	60	501	570	64	2 800	3 400	17,5	NU 421 M	-
110	170	28	128	166	19,3	4 500	7 000	2,3	NU 1022 ML	M
	200	38	335	365	42,5	3 600	4 000	4,7	* NU 222 ECP	J, M, ML
	200	38	335	365	42,5	3 600	4 000	4,8	NU 222 ECP	J, M, ML
	200	38	335	365	42,5	3 600	4 000	5	* NUP 222 ECP	J, M, ML
	200	38	335	365	42,5	3 600	4 000	4,8	* N 222 ECP	M

31.IRUDIA. SKF errodilo zilindrikodun errodamenduak.

$$C_{zilindrikoduna} = 335KN$$

SKF katalogoan boladun errodamenduaren aukeraketa

Euskarri berean kokatuta egongo direnez bi errodamenduak barne eta kanpo diametro berak izatea bilatzen da.

Dimensiones principales			Capacidad de carga básica		Carga límite de fatiga	Velocidades nominales		Masa	Designación
d	D	B	dinámica C	estática C ₀	P _u	Velocidad de referencia	Velocidad límite		
mm			kN		kN	r. p. m.		kg	-
105	130	13	20,8	19,6	1	10 000	6 300	0,32	61821
	145	20	44,2	44	1,7	9 500	5 600	0,87	61921
	160	18	54	51	1,86	8 500	5 300	1,2	* 16021
	160	26	76,1	65,5	2,4	8 500	5 300	1,6	* 6021
	190	36	140	104	3,65	7 000	4 500	3,8	* 6221
	225	49	182	153	5,1	6 300	4 000	8,15	6321
110	140	16	28,1	26	1,25	9 500	5 600	0,49	61822
